

Gure Esku Dagoren igandeko giza-katean parte hartzera deitzen dugu

Gure Esku Dagok giza katea egingo du, ekainaren 10ean igandean Gasteiz, Bilbo eta Donostia lotuz, **“Eman eskua etorkiZUnari”** lemarekin.

LABen ordezkariak zabal batek parte hartuko du deialdian eta Garbiñe Aranburu idazkari nagusia Donostian izango da. Era berean, LABek dei egiten die langileei ekimenean parte hartu eta erabakitzeko eskubidearen aldeko borrokan inplikatzeko.

LABentzat oso garrantzitsua da euskal herritarrok, herri gisa, nazio gisa, gure etorkizuna erabaki ahal izatea, eta horren alde egiten ari gara, erabakitzeko eskubidea oinarrizko eskubide demokratikoa baita. Gure ustez, erabakitzeko eskubidea behar dugu egoera laboral eta soziala errotik aldatzeko. Langileok erabaki, herriak erabaki, gure etorkizunaren jabe izateko.

Erabaki, bizi proiektu duin eta askea edukitzeko eskubidea bermatzeko, langileoi dagozkigun gaietan parte hartu eta erabakitzeko aukera izan behar dugu. **Lan harremanak, babes soziala, eredu sozial eta ekonomikoa eta demokraziaren inguruan erabaki nahi dugu, lan duina bermatuko duen Euskal Herriko langileen estatutua eratzeko, lan harremanetarako esparru propioa egituratzeko, besteak beste.**